

Enara Garmendia Pelaez

B maila • 3 saria

Nire izena Enara Garmendia Pelaez da, Mutiloan jaioa, 2006ko irailaren 27an, eta gaur egun bertan bizi naiz. 15 urte ditut, eta Beasaingo La Sallen ikasten dut DBH 4. maila. Nire zaletasunen artean futbola (futbol arbitratze titulua ateratzen nabil), hizkuntzak (euskara, gaztelania eta ingelesa hitzegiteaz gain, txinatarra ikasten hasi nintzen duela 3 urte), musika (trikitia 5 urteren zehar ikasi dut), eta bidaiatzea daude. Nire ama hizkuntza euskara da, nahiz eta gaztelania ere beharrezkoa dudan familiako hainbat kideekin komunikatzeko (aiton-amonak besteak beste). Hurrengo ikasturtean batxilergo bio-sanitarioa ikasiko dut Goierri eskolan, etorkizunean ikerketa zientifikoetan lan egitea gustatuko litzaidakelako.



EMAKUMEA ZARELAKO

Hilobi polit eta elegante bat elizaren erdian. Etorritako pertsonak ezagunak egiten zaizkit, baina bizkarrez daudenez ezin ditut ondo ezagutu. Mezari hasiera eman dio apaizak, eliza hutsean bere ahotsaren oihartzuna bakarrik entzun arte. Pertsonak kontatu eta guztira 5 direla ikusi dut: 4 emakume elegante eta gizon bat. Oso triste dirudite, baina elizaren atzealdean egoteak ez du laguntzen gauzak zehaztasunez ikustean. Jende eza dela eta, elizan aurrera egitea erabaki dut erdiko igarobidetik. Gerturatzen noan ahala presente daudenak ezagutzen joaten naiz: 4 emakume elegante nire bi ahizpak, Olivia eta Emily, eta Penelope eta Sophie nire lagunak. Gizon burumakurra nire senarra da, Harry, inoiz ikusi dudan bezalako izaera triste eta depresiboarekin. Nor hil ote zen? Izeba Margaret? Ez, hau duela 20 urte hil zen. Nire ahizpak, senarra eta lagunak erlazionatzen dituen gauza bakarra ni naiz, nor bestela?

Harry gerturatu eta ea nor den galdetu diot. Ez dut erantzunik jaso, ez begirada bat ere. Burumakur jarraitzen du malkoak bere masailetatik erortzen diren bitartean. Ez dut egoera prozesatzeko ez denborarik, ezta gaitasunik ere. Harryz pasu egitea eta nire lagunengana jotzea erabaki dut, hauek erantzungo didatelakoan. Ezta kaixo bat ere. Existituko ez banintz bezala tratatzen ari zaizkit, eta kezkatzeko momentua dela iruditzen zait. Bizidunak alde batera uztean eta azken batez hildakoa nor den deskubritzea erabaki dut, erantzunik gabeko galdera hauek askatzeko. Hildakoa emakume heldu ilezuri bat dela ikustean, ispilu efektua nabaritu dut nire barnean, emakume hori ezagutuko banu bezalakoa. Ezagutu eta nor den jakin ere, ni bainaiz. Orain denak du zentzua, edo ezerrek. Nola izan daiteke posible nire burua hor egotea beltz koloreko hilobi beldurgarri batean eta ni hori ikusten egotea? Nola izan daiteke nire hileta propioa ikusten egotea? Hilda ote nago edo amets gaizto bat bakarrik ote da? Erantzuna inoiz jakingo ez ditudan galderak egiten dizkiot nire buruari, esnatu naizen arte.

Dena amets gaizto bat izan da. Ohetik altxa, ispiluan begiratu, eta 20 urteko neska gazte bat ikusi dut, ni neu. Gosalduta eta lanera abiatu naiz nire mapak hartuta. Kale hau oraintxe bertan ikusten ari naizen bezala beste noizbaitean ikusita dudala datorkit burura, “deja vu” bezala ere ezagutua. Bidegurutze batera iristean ezkerretarako bidea hartzeko animoa izan arren, eskubira hartu eta aurrera jarraitu dut. Ekintza hori ez zegoen nire agindupean. Egia esan, ordura arte egindako ekintza guztiak (ohetik altxa, gosalduta, jantzi...) nik ezer kontrolatuko ez banu bezala izan dira. Baina ispiluan begiratuta, neure burua ikusi dut, ezta?

Gaurko eguna nire bizitzako arraroena bezala izendatuko nuke. Lehenengo hilda nengoenaren ametsa, ondoren nire kontrol falta, erabakiak hartzeko aukerarik ez izatea... Ez dakit zer gertatzen ari den, hartutako zerbaiten efektua den edo... baina berriz ere beldurtzen hasita nago, nire bizitza, bizirik banago, ez baitu batere zentzurik. Pentsamendu arraro eta irrazionalak izan baino lehen gertatzear dagoenean zentratzea eta bizitza bizitzea erabaki dut.

Gertatzen ari zena ulertzen saiatzen nintzen bitartean lantokira iritsi naiz eta ez naiz ia konturatu ere. Sartu eta beste pertsona ezagun batekin topatu naiz: Bruce Charles Heezen, ospe handiko pertsona eta nire nagusia. Berak agindutako mapak erakutsi dizkiot, ezagutzen dugun orain arteko Lur planetaren izana guztiz zalantzan jartzen duena. Heezen jaunak itsasoaren lurrazalaren mapa fisiko bat sortzeko agindu zidan, ur azpiko mendilerro, mendikate eta uharri guztiak antzemateko. Baina mapa horietan inoiz pentsatuko ez genuen egitura aurkitu dugu: Ozeano Atlantikoaren erdi-erdian milaka kilometroko luzera zuen haustura bat, tenperatura altuak dituenak. Historia aldatuko duen aurkikuntza izan behar zena. Heezen-ek guztiz zapuztu du nire aurkikuntza “emakumeen txorakeria bat” besterik ez dela esan didanean. Lana gaizki egin dudala eta berriz ere errepikatzeke eskatu dit.

Lana errepikatzera noa orain. Lanean ari nintzen bitartean zera pentsatu dut: izan al daiteke ni nire heriotzaren aurrean egotea eta nire bizitza osoa errepasatzen aritea? Bi aldiz pentsatu eta logikarik ez duela ikusi dut. Gertatzen ari denaren kontzientzia dudalako, eta momentuan gertatzen ari delako. Beraz, zergatik ariko ote naiz nire bizitza guztia berbizitzen baina aldaketak egiteko aukerarik izan gabe? Ezerk ez du zentzurik nire burmuin zientifikoan, nire bizitzan zehar bizitakoa bizitzen ari naizelako bigarren aldiz. Zentzugabekeriak utzi eta nagusiaren bulegora bideratu naiz.

- Berriz ere al zatoz Atlantikoko hausturarekin? Nola nabaritzen den emakumea zarela... lana bi aldiz bidali eta berdinarekin etorri zara, LANA BI ALDIZ GAIKIZI EGINDA! Nik errebisatu beharko dut. Frogatuta geratu den bezala, emakumeek ezin baitituzue gauzak ondo egin.

Hitz bat ere ez. Ezta hitz bat bera ez dut entzun bere aho zabaletik. Harridura nabaria da bere aurpegian, hitzen bidez ezin da komunikatu. Ezer esan gabe mapak hartu, eta alde egin du, niri ezer esan gabe. Gaia uztea pentsatzen nuen, baina Heezen atzetik jarraitzen hasi naizela ikusi dut. Mapak Zientziaren Unibertsitatean entregatu ditu, eta etxera itzuli da.

Henry Bryant Bigelow Domina Ozeanografian eta Cullum Domina Geografikoan. Horiek izan ziren nire aurkikuntzarekin Bruce C. Heezeni emandako dominak. Nire izena ez zen inongo tokietan agertzen, ezta “eskerrak” atalean. Nire lan guztiaren ondoren “emakumeen

txorakeriak” zirela zihoen pertsonari eman dizkiote NIK eta bakarrik nik merezitako dominak. Tira ba, zer espero nuen mende honetan? Emakumeek ez dugu ez hitzik, ezta botorik gizarte honetan, existituko ez bagina bezala da, nahiz eta geologiaren aurkikuntza garrantzitsuenetako bat egin. Berdin du, emakumea naiz, eta inoiz ez naiz ohorezko zientzialari bezala ezaguna izango horrexegatik.

Berriz ere esnatu naiz, baina oraingoan nire hiletan nago berriz. Hildakoaren begietatik ikusten dut dena, ordea. Hasierako egoera berdinean gaude, eta nik ezer ulertu gabe jarraitzen dut. Apaiza hitzegitear dago. Oraingo honetan esaten dutena entzuteko gai naizela konturatu naiz. Beraz, apaizak esaten duena entzuten jarri naiz: “Hemen elkartzen gara gaur denek maitatu izan duten pertsona bati agurra emateko, lagun eta emazte zintzoa. Marie Tharp-ek gaur utzi gaitu, baina beti egongo da gure artean...”

Marie Tharp naiz. Bai, ni neu. Momentu honetan ez duzue ezer ulertuko, baina nik bai, nor naizen azkenean jakin baitut, Marie Tharp naiz. Marie Tharp, estatubatuar geologoa eta itsas kartografoa, berak egindako aurkikuntza harrigarriak garrantzirik gabekoak izan zirenak gizon batek aurkeztu zituen arte. Nire bizitzan zehar urteak eta urteak gai ezberdinak ikertzen eman ondoren, gizonezkoen eskutik munduan zehar ezagutzera eman direnak, nire lana eta izena inon agertu gabe; gizartearen eta zientziaren matxismoa jasandako emakume zientzialari askotako bat. Ahotsa altxatzeko beldurrez, bizirik zegoen bitartean merezi zuen antzemate eta meritua jaso ez zuena. Balioztatzen jakin ez zuen gizarte zaharkitu eta memelo batengatik.

Gaur egun oraindik meritu hori jaso gabe jarraitzen dut, eta gaur egun ere bidegabekeria hauek jarraitzen dute. Zer gizarte mota eraiki dugu emakumeok ezin dugunean gizonen antzekoak izan? Nik, jada, ezin dut ezer egin hau aldatzeko. Duela ia 20 urte hil nintzen, baina denboran atzera egin ahalko banu, merezi nuen ospea erreklamatuko nuke. Zuek ahal duzue ordea; benetako zientzia egin eta bizi, genero desberdintasunik gabekoa, edozein pertsonen egindako zientzia.

Idazlearen oharra:

Marie Tharp 1920ko uztailaren 30ean jaio zen Michiganen. Estatubatuar geologoa eta itsas kartografoa Columbiako Unibertsitatean ikasi ondoren, bertan hasi zen lanean Bruce Heezenekin batera itsas hondoaren lehen mapa zientifikoa sortzen. Ikerketa aurrera eramaten zuen bitartean, Atlantikoaren erdialdean milaka kilometroko luzera zuen haustura bat aurkitu zuen, gaur egun ezagutzen dugun dortsal ozeanikorik handiena. Aurkikuntza egin ondoren inork ez zuen sinetsi, tontakeriak besterik ez zirela esaten zioten. Denborak aurrera egin ahala, Heezeni eman zioten aurkikuntzaren meritua, eta Marie Tharp-en izena ez zen inoiz ezagutu. 2006ko abuztuaren 23an hil zen minbizia jota, zientziaren aurkikuntza garrantzitsu bat eginda baina merezitako meritu eta aintzaztapenik jaso gabe.